Defendemos EUSKADI Zaindu

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Idoia Sagastizabalen hitzaldia
Bilbo. 2026.11.27

Arratsalde on, Bilbo! Arratsalde on, Bizkaia! Bukatu da. Bilbo da kanpainaren azken geltokia. Argiak eszenatokira igotzen garenontzat dira. Baina oholtza nonork muntatu dau. Nonork jarri dituz orain jesarrita zagozen aulkiak. Nonork antolatu dituz ekitaldiak. Nonork kartelak jarri dituz gauez, eskilara eta kola-potoa besapean. Nonork deitu deutso auzokoari ekitaldira etorteko. Nonork ordu eta ordu emon dituz, inork ikusi barik, gaur hemen egoteko.

Persona horreek zuek zarie. Etxe honen zimenduak zarie. Ez dira ikusten, baina eurek barik ezer ez dago zutunik. Halako militantziagaz, etxe hau ez dau inork mobiduko! Bihotzez, eskerrik asko!

Llevamos toda la campaña hablando de la casa vasca. Y una casa no se levanta con una sola piedra: se levanta con muchas, una a una. Las nuestras son seis. Tres en euskera, las de EAJ. Tres en castellano, las del PNV. Lehenengo letrarekin noa:

EMAKUMEAK berbaren Ea. Minutu bat egon gara isilik, Bilbon emakume bat erail dabelako. Isilunea errespetua da. Isiltasuna, ez. Ez dago lekurik indarkeria matxistarentzat gure etxean! Ez dogu onartuko, ez gara isilduko, ez gara ohituko. Emakumeen bizitza eta askatasuna ez dira inon negoziatzen! Horretarako ere gagoz!

AURRERA berbaren A. Balaztari bakarrik eragiten dionak ez dau aurrera egiten. Euskal Taldea, beti aurrera: pentsinoen birbalorizazioa, mendekotasunaren erdia Estatuak finantzatzea, industriarentzat sare elektriko gehiago. Nork lortu dau? Euzko Alderdi Jeltzaleak.

JENDEA berbaren J. Pertsonak: gure abiapuntua eta gure helmuga. Euren pentsinoa irabazi daben aita eta ama; senideren bat zaintzen dozuenok; zuen seme-alabak, Bizkaiko tailer batean lanean. Eta emakumeen eskubideak? Inongo mahaitan ez doguzanak negoziauko!

Y seguimos construyendo la casa vasca.

Con la P de PARTIDO. De los que se juegan. El domingo, y a partir del lunes también, saldremos al campo con la camiseta de nuestra selección, la Euskal Selekzioa. A jugar en equipo y con voz propia. A decidir aquí, a negociar allí ¡Y a puntuar siempre para Euskadi!

Con la N de NACIÓN. No es una palabra para sacar los días de fiesta. ¡Es nuestro País, es nuestra Casa! Amaren etxea, aitaren etxea, gure etxea. Danon etxea! Una casa que levantada con esfuerzo por quienes nos han precedido. ¿Y cuál es nuestro deber? Cuidarla, protegerla y hacerla crecer.

Y, la V de VIDA. La tuya. El Partido Nacionalista Vasco es tu póliza a todo riesgo: cubre y protege tu pensión, tu trabajo, tu seguridad, tu vivienda y tu capacidad de decidir. Para que quien quiera quedarse, pueda; y quien se quede, crezca.

Sei letra, sei berba, sei harri... etxe bat! Gure etxea... danon etxea! Y una casa… ¡Se barre! Y mientras las mujeres y los hombres del Partido Nacionalista Vasco barremos para casa… ¿el resto qué hace? A ver, que os lo sabéis casi mejor que yo. ¡La casa sin barrer! Una casa se barre para vivir hoy y mañana. Queremos el futuro en Euskadi, en nuestra casa, la casa vasca.

Argi izan: Euskadi ez da bloke bat. Lur honi errotutako etxea da. Beraz, domeka honetan, desblokeatu zaitez! Desblokeatu zaitez, gure gazteak hemen emantzipatu ahal izateko. desbloquéate para que los salarios te permitan vivir y no solo sobrevivir. Desblokeatu zaitez, familiek aukera eta laguntza gehiago izateko. Desbloquéate para que Euskadi siga teniendo una voz fuerte en Madrid. Eta horrek guztiak nonoren bermea dauka. Bat, bakarra: Euzko Alderdi Jeltzalea. Eta horretarako, domekan, bozkatu zugaitik! ¡Vota por lo que crees!

Bozkatu Euskadi!

¡Vota PNV!

Bozkatu, Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi askatuta!